

Guztiok dakizuen moduan, ez da urte erraza izaten ari inorentzat. Etxean itxita egotea egokitu zaigu, gure senideengandik urrun, hauekin pantaila atzean edo distantzia bat mantenduz komunikatu behar izan gara eta musuak, laztanak eta besarkadak debekatu zaizkigu. Hau gutxi balitz, ekonomikoki ere urte gogorra izaten ari da.

Urtea amaitzen ari den honetan, guztiok gaude urte berri eta hobe bat hasteko desioan, hoberako izango denaren esperantza eta gogoz. Baita gu ere. Izan ere, aipatutako egoera gogor hori are gogorragoa izaten ari da, jada, guk aurten bizi izan duguna aurrez bizi zuten preso eta iheslarien senideentzat. Distantzia eta senideak ikusteko ezintasunei, pandemiak ekarritako muga are zorrotzagoek bereziki latza egin baitute 2020. urtea.

Guretzat, urte hasiera beti izaten da berezia eta baita esperantzagarria ere. Urtero, urtarrilean, milaka pertsona batzen gara Bilbon, salbuespeneko espetxe politikarekin amaitu eta etxeratze prozesuaren, elkarbizitzaren eta bakearen aldeko aldarria zabaltzeko. Ideia, atxikipen eta bizipen anitzak dituzten pertsonak mezu beraren baitan batzeak urtea indarrez hasteko bultzada eman ohi digu.

Aurten, dakizuen moduan, ezingo gara Bilbon elkartu, segurtasun eta osasun bermeak ziurtatzearen beharrez. Baina ez gara etxean geratuko. Herriz herri eta auzoz auzo batuko gara, aldarri zehatzen baitan, herri aktibazioari eutsiz.

Larriki gaixo diren presoak etxean egon behar dutela aldarrikatuko dugu.
Urrunketa politikarekin amaitu behar dela.
Gurasoak espetxean dituzten hurrek gurasoekin egoteko baldintzak bermatu behar direla.
Adinduak diren presoak etxean behar dutela.
Eta euskal preso guztiei gradu progresioa ezarri behar zaiela.

Aldarri nagusi hauen baitan batuko gara urtarrilaren 9an. Hau baita presoak etxerako prozesua egin dezaten ahalbidetu beharreko bidea. Eta hauxe bera preso eta iheslariei ezarritako salbuespen legediak oztopatzen duena.

Bada garaia, behin betikoz salbuespen legedia honi amaiera eman eta preso eta iheslarien auziari aterabidea ematekoa. Korapiloak dirauten bitartean, ezingo baitugu herri gisa elkarbizitzaren bidean aurrera egin.

Horretarako gaude gaur hemen eta horretarako batuko gara urtarrilaren 9an ere. Gure bultzadaz baino ez direlako eman beharreko urratsak emango; finean bidea gu garelako.

**BIDEA GARA
SARE HERRITARRA**